BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2729

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko saioetan azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen duena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak 2014ko otsailaren 10eko Ebazpenaz (2014-02-18ko EHAA, 33. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen. Deialdi honi dagokion lehenengo azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda argitaratzen da honen bitartez. Hortaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– 2014ko otsailaren 10eko Deialdiari dagokion ohiko azterketaldian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda adiera ematea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/r61-euskera/es helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki tauletan zerrenda horren argitalpena agintzea:

Vitoria-Gasteizen: IVAP, Donostia kalea 1; 01010 PK.

Bilbon: IVAP, Errekalde zumarkalea 18; 48009 PK.

Donostian: IVAP, San Bartolome kalea 28; 20007 PK.

Oñatin: IVAP, Unibertsitateko etorbidea; 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den biharamunetik hasita, interesatuek 6 egun naturaleko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horren barruan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak beren beregi prestatutako inprimakia erabili behar da. Erreklamazio-inprimakia ebazpen honen I. eranskinean eta IVAPeko webgunean aurki daiteke.

Erreklamazioak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dira. Halaber, erreklamazioak aurkez daitezke azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 atalak dioen edozein eratan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

ERREKLAMAZIO-ORRIA
HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2014/1)

ERREKLAMATZAILEAREN DATUAK

1. abizena	2. abizena	Izena	NAN

EGIN DUZUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐

JAKINARAZPENERAKO HELBIDEA

Kalea	Herria	Posta-kodea

Posta elektronikoa	Telefonoa

ESKAERA

Toki gehiago behar baduzu, idatzi atzealdean

Langilearen sinadura

....., 2014ko ..... (a)ren ..... (a)

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO